

DIRULAGUNTZEN DEIALDIA, KULTUR JARDUERAK ANTOLATZEKO ETA EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO EKITALDIAK ANTOLATZEKO 2024 URTEA

Estella-Lizarrako Udalak, Kultura, Ondare eta Jai Batzordetik eta Euskara Batzordetik, dirulaguntzak emanen ditu, arau hauen arabera:

ARAUAK:

1. XEDEA:

Deialdi honek Estella-Lizarrako elkarteak eta norbanakoak diruz laguntzeko araudia ezarri nahi du, honako esparru hauetan egiten diren jarduerak sustatzeko:

1.1. Kultura jarduerak

Diruz lagunduko dira jarduera kulturalak eta soziokulturalak, baita heziketa-, jaialdi- eta jolas- izaera dutenak ere (ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak, etab); artistikoak (kontzertuak, antzerki-emanaldiak, dantza-ikuskizunak, zine-proiektzioa, dokumentalak, hitzaldia, prestakuntza-saioak, Liburuaren Azoka...), eta Estella-Lizarrako elkarteek egiten dituzten kultura-programak eta -jarduerak babestea izanen dute helburu.

Deialdi honetatik kanpo daude idatzizko lanak, mota guztietako formatuetarako edukiak eta ikus-entzunezko lanak, oro har, argitaratzea.

1.2. Euskararen erabilera sustatzen duten jarduerak

Diruz lagunduko dira euskarazko normalizazioa helburua duten jarduerak; hau da, euskararen erabilpen funtzionala zabaldu nahi dutenak eta Lizarrako euskaldunei euskaraz bizitzeko aukera berriak eskaini.

2. DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA, AURREKONTU-KONTSIGNAZIOA ETA ORDAINKETA MODUA

2.1. Dirulaguntza hauek emateko Estella-Lizarrako Udalak esleitutako diru kopurua, 2024ko aurrekontuaren arabera, honakoa da:

- Dirulaguntza kultura ekitaldiak antolatzeagatik: 8.500 €; kopuru hori indarrean dagoen aurrekontuko kontu-sail honen kontura ordainduko da: 33400-4820001 "Entidades organizadoras de actividades culturales.

- Dirulaguntza euskarazko jarduerak antolatzeagatik: 2.000 €; kopuru hori indarrean dagoen aurrekontuko kontu-sail honen kontura ordainduko da: 33500-4890003 "Subvención asociaciones actividades promoción euskera".

2.2. Dirulaguntzak honela ordainduko dira:

- %80 ebazpena egitean aurrerakin gisa.
- Gainerako %20 jarduerak burututakoan eginiko gastua justifikatu ondoren.



AYUNTAMIENTO
ESTELLA-LIZARRA
UDALA

2.3. JARDUEREN ARABERAKO DIRU-AGUNTZEN kasuan emandako diru kopurua ez da inoiz izanen jardueraren kostu osoaren % 75 baino gehiago (BEZ kengarria ez da sartzen), eta, ematen diren bi dirulaguntzetan ez da inoiz sortutako defizita baino gehiagokoa izanen.

Aurreratutako diru kopurua egindako gastuaren %75 baino handiagoa izanen balitz, erakunde onuradunak jasotako gehieneko kantitatea itzuli beharko luke. Jasotako kopurua ez da inoiz izanen jarduerak sortu dituen gastu eta sarreraren arteko diferentzia baino handiagoa.

3. DIRULAGUNTZAK ESKATZEKO BALDINTZAK

3.1. Elkarteenak:

Laguntza ekonomiko hauek jasotzeko, 1. artikuluko jardueretakoren bat egiten duen elkarte baten kide izatea frogatu beharko da eta, hortaz, dirulaguntzetarako eskubidea izanen dute Nafarroako Gobernuan legez inskribatuta egonik, kultur ondasunak edo bizitza artistikoa aztertu, babestu eta bultzatzen aritzen diren elkarteak.

Entitatea edo elkarteak Lizarran kokatuta egotea eskatuko da.

3.2. Pertsona fisikoenak:

- a) 16 urte baino gehiago izatea.
- b) Estella-Lizarran erroldatuta egotea.

3.3. Programatutako jarduerenak:

Publikoak izatea eta Lizarratar guztientzako zabalik.

4. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

Eskaerak Estella-Lizarrako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira. **2024ko urtarrilaren 1etik irailaren 30era**, biak barne, aurkeztutako eskabideak onartuko dira, epea luzeazina izanen da eta ez dira onartuko epetik kanpo aurkeztutako eskabideak.

5. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Udalaren Eskabide Ofizialarekin batera honako hau emanen da:

- 5.1. Erakunde eskatzailearen egiaztagiria. (IFK zenbakia)
- 5.2. Egindako lanaren edo egin beharrekoaren azalpena.

5.3. Egindako lanaren edo egin beharrekoaren gutxi gorabeherako gastuen eta diru-sarreraren aurrekontua, kontuan hartuta BEZ kengarria ez dela gastutzat hartzen eta, beraz, ez dela diruz lagunduko, hori dela eta, BEZ kengarria eta kengarria ez den BEZ aurrekontuan banakatuko da.

5.4. Estella-Lizarrako Udalarekiko tributu-betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria, baita erantzukizunpeko adierazpena ere, zeinean aitortzen den azaroaren 7ko, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua adierazten dituen baldintzak betetzen direla, dirulaguntzen onuradunak izateko.



6. ESKABIDEEN IRIZPIDEAK

Lizarrako Kultura, Ondare eta Jai Batzordeak eta Euskara Batzordeak eskaerak baloratuko dituzte eta Udalaren Tokiko Gobernu-Batzordeari diruz lagundu beharreko erakunde eta jardueren zerrenda proposatuko dio.

Balorazio-irizpide orokorrak

Dirulaguntzak emateko honakoak hartuko dira kontuan, bereziki: aurkeztutako egitarauak deialdiaren helburua izatea, jardueraren interesa, partaideen kopurua eta jardueraren oihartzun soziala.

A) Kultura Jardueren Irizpideak.

1. Dirulaguntza lortu ahalko dute bi multzo hauetako batean kokatuta dauden jarduera kulturalak:

a) Jarduera artistikoak: musika-, antzerki-, zinema- eta dantza-ikuskizunak, erakusketak eta haur animazioa.

b) Jarduera soziokulturalak: hitzaldiak, kultur zikloak, jaialdiak, literatur jarduerak, eta animazio jarduerak

2. Dirulaguntzak emateko irizpideak:

Proposatutako jardueren kalitatea, edukiari, prozedurari eta jarduera burutzerakoan erabilitako baliabideei dagokionez. Kultura ondarea ikertzen edo hedatzen laguntzea. Herriko kultura eskaintza orokorra osatzeko laguntzea.	40 puntu arte
Jarduera jaso behar duten pertsonen kopurua.	20 puntu arte
Proposamena berritzailea izatea (herriko beste entitate batek egiten ez badu, ikerketarekin edo teknologia berriak aplikatzearekin zerikusia badu, elementu berritzaileak sartzen baditu)	10 puntu arte
Adin ezberdinetako pertsonen parte-hartzea sustatzea	10 puntu arte
Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea	10 puntu arte
Kulturen arteko ezagutza eta elkarrekintza sustatzea	5 puntu arte
Elkartearen ibilbidea eta azken 5 urtetan egindako jarduerak	5 puntu arte

- Antzerki amateur jardunaldiak antolatzea dela eta, Estella-Lizarrako Udalak jarduera honek antolatzeagatik sortutako defizita estaliko du, gehienez 1.300 euro bitarteko kopuruarekin.

- Hiriko liburu-dendek urtero antolatzen duten Liburu Azoka dela eta, Udalak lagundu egingen dio azokari, beharrezko materialak utziz gain, antolakuntza-gastuak ordaintzeko laguntza emanez, hala nola liburuen gaueko zaintza, eta gehienez ere 200 euro emanen dira.

B) Euskararen erabilera sustatzen duten jarduerak.

Diruz lagunduko dira euskal hiztunen kopurua handitzen edo udalerrian euskararen erabilera funtzionala areagotzen laguntzen duten jarduerak (erabilera funtzionala esparru hauetan: hezkuntza, lan mundua, hedabideak, zerbitzuak eta gizarte-bizitza, kultura, aisialdia eta familia).

Lehentasuna izanen dute honako aspektu hauek lantzen dituzten jarduerak:



Proposatutako jardueraren kalitatea edukiari, prozedurari eta jarduera burutzerakoan erabilitako baliabideei dagokienez.	30 puntu arte
Jardueraren diseinuak parte-hartzea orokorrean erraztasuna emateko eta adin-tarte ezberdinen arteko harremanak ahalbidetzeko.	25 puntu arte
Proposamena berritzailea izatea, edukiari edo planteamenduari dagokionez	10 puntu arte
Herriko kulturen arteko ezagutza eta harremana erraztea	10 puntu arte
Jarduerak, esparru sozial jakin batean euskararen erabilera sustatzeaz jakin, euskaldunei edo euskara ikasten ari direnei aukera eman diezaien hizkuntza erregistroak aberasteko, hau da, testuinguru eta behar komunikatiboen araberako hitz egiteko moduak aberasteko	25 puntu bitarte

7. EBAZPENA

Estella-Lizarrako Udalaren Tokiko Gobernu-Batzordeak ebazpena egingen du, Udaleko, Kultura eta Ondare Batzordearen eta Euskara Batzordearen iritzia jaso eta gero.

Ebazpen hori Udaleko iragarki-oholean kokatuko da eta onuradunei banan-banan idatziz jakinaraziko zaie.

Puntu bati dagokion balioa kalkulatzeko, dirulaguntza bakoitzari esleitutako diru-kopuru osoa, elkarteei esleitutako puntuen batuketaren artean zatituko da.

Elkarte bakoitzari emandako puntuazioarekin eta puntu bati dagokion balioarekin kalkulatu da elkarte bakoitzarentzako diru kopurua.

8. BETEBEHARRAK

Elkarte onuradunek honako betebeharrak dituzte:

- Diruz laguntzen diren jarduerak egitea
- Diruz lagundutako egitarauetan suerta daitezkeen aldaketa esanguratsuak Udalari jakinaraztea.
- Baloratzailerei bere eginkizunean laguntzea.
- Jardueren eta egitarauen propagandan Estella-Lizarrako Udala aipatuko da.
- Jardueren propaganda euskaraz eta erdaraz egingen da. Puntu hau bete ahal izateko erakundeek arloko teknikariaren eta euskara teknikariaren laguntza eskatu ahalgo dute.
- Diruz laguntzen diren jarduerak beste erakunde baten dirulaguntza jasotzen badute, horrela adierazi beharko zaio Estella-Lizarrako Udalari.

9. EGINDAKO GASTUAREN JUSTIFIKAZIOA

Onuradunak justifikatu beharko du eman zitzaioneko xedearekin erabilia izan dela diru-laguntza, Udaletxeko erregistro orokorrean ondoan adierazten diren agiriak aurkeztuta:

- Onuradunaren zinpeko aitortpena zeinetan egiaztatzen baita ordainagiri gisa aurkeztutako fakturak diruz-lagundutako jarduera egiteko erabili direla.

b) Zinpeko aitortpena, faktura bakoitzean sartutako BEZaren kengarritasunari buruzkoa. BEZ kengarria ez da inola ere diruz lagunduko.

c) Fakturak, honako betebeharrak hauek beteko dituztenak:

- Jatorrizkoak edo Udalaren idazkaritzak konpultsatutako fotokopiak izatea.
- Entitate igorlearen NANA edo IFZa jasotzea, baita haren izena eta izen soziala ere.
- Fakturaren zenbakia eta igorpen-data zeinak bat egin behar baitu jarduera garatu den epealdiarekin.
- Jardueraren deskripzioa.
- Diruz-lagundutako gastuen ordainketen egiaztagiriak (banku-transferentzia, hartze-agiriak, edo beste edozein agiri frogatzaile).

Honako hauek ezin dira justifikatu:

- Ez dira gastutzat onartuko hirugarrenei emandako dirulaguntzak.
- Jarduera gastronomikoak deialditik kanpo daude, interes kultural berezia ez badute.
- Bidaiak salbuetsita daude, interes kultural berezia ez badute.

Dirulaguntza zertan erabili den 2024ko abenduaren 31 baino lehenago justifikatu beharko da. Onuradunak aurkeztutako dokumentazioaren egiaztatze lanetan zuzendu daitezkeen hutsak aurkitzen direnean, onuradunari jakinarazi eta hamar eguneko epea emanen zaio hutsak konpon ditzan. Ez baditu zuzentzen horiek, hurrengo paragrafoetan zehazten den moduan jokatu da.

Erakunde onuradunak ezin izanen balu emandako dirulaguntzaren zenbateko osoa behar bezala justifikatu, zerbitzu arduradunak ofizioz egingen ditu dirulaguntzaren zenbatekoa murrizteko izapideak, justifikatu beharreko zenbatekoaren eta behar bezala justifikatutako zenbatekoaren arteko hein berean.

Estella-Lizarrako Udalak egiaztatu ahalko du, nahi duen unean eta egokiak juzgatzen dituen prozeduren bidez, emandako dirulaguntzak behar bezala erabili direla; hau da, dirulaguntzaren xede diren jarduerak egokitzen direla deialdiaren helburuei.

Dirulaguntza ez bada erabiltzen edo era desegokian erabilia bada, Estella-Lizarrako Udalak dirulaguntzaren zenbatekoa itzultzeko eskatu ahalko du, legez ezarritako prozeduren bidez, baita kredituak konpentsatzearen bidez ere, onuraduna titular aktiboa denean eta administrazioa hartzekoduna.

Deialdi honetan jasotako dirulaguntza bateragarri da xede berari jarraiki beste administrazio, erakunde edota pertsonen emanikoarekin. Baina, dirulaguntzen zenbatekoak ezin izanen du gainditu, inola ere, diruz lagundutako jardueraren kostua. Jarduera honetarako jasotako dirulaguntzen kopuruak, batuta, jardueraren kostua baino handiagoa bada, emandako dirulaguntza hein berean murriztuko da.

Dirulaguntza justifikatzeko derrigortasuna ez betetzeagatik, epez kanpo aurkeztu izana hura edo aski ez justifikatu izanagatik, emandako dirua (guztia edo hein batean) itzuli beharko du derrigorrean, betiere kontuan hartuta ez betetze maila eta batera gertaturiko inguruabarrak.



AYUNTAMIENTO
ESTELLA-LIZARRA
UDALA

10. EZ BETETZEAK

10.1. Dirulaguntza emateko orduan kontuan hartutako baldintzen aldatzeak emate ebazpena aldatzea ekar dezake.

10.2. Jasotako diru kopuruak itzuli beharko dira honako kasu hauetan:

- a) Onartutako jarduerak ez justifikatzea.
- b) Dirulaguntza eskatutako baldintzak bete gabe lortzea.
- c) Dirulaguntza jasotzeak ezartzen dituen baldintzak ez betetzea.

10.3. Ikuskaritza eta kontrola funtzioak gauzatzekoan, dirulaguntza era oker batez lortu edo erabili egin dela antzematen bada, Udalak fakturak edo agiriak atxiki ahalko ditu, ikusitakoaren neurri berean.

11. BALORATZEKO IRIZPIDEAK

11.1. Dirulaguntza banatuko da elkarte bakoitzak lortuko dituen puntuen arabera.

11.2. Dirulaguntza osoa esleituko ez balitz, soberakina Udaleko aurrekontura itzuliko da. Estella-Lizarrako Udalak gordeko du, behar bezala argudiatu, dirulaguntzak duen kopuru osoa ez banatzeko aukera.

12. ARAUTEGIA

Oinarri Hauek interpretatzeko eta aplikatzeko Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta Dirulaguntzei buruzko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua aplikatuko dira.

Estella-Lizarrarri, 2024ko ekainaren 6an
Alkatea